Mofeta, Kattagorri, Azeri, Hartzatxo, Ahate, Igel eta Untxik
asko maite dute euren andereño Gazela.
Harekin asko ikasteaz gain, ondo pasatzen dute,
dantza egin, istorioak kontatu…

Baina, egun batez, gelara iritsitakoan Gazela ez dago bertan.
Zer gertatu ote zaio?

nubeOCHO

ISBN: 978-84-19607-07-2 www.nubeocho.com

MAÏTE ZAÏTUGU, ANDEREÑO
Luis Amavisca
Mar Ferrero
nubeOCHO



Nire seme Juan-i.
Eta libreago izaten irakasten dioten irakasle, andereño eta maisu guztiei.

Luis Amavisca

Historiako Marinari, zientzietako Rosari, kimikako Mercedesi,
haur hezkuntzako Ainhoari, Reme, Ana andrea eta Kevini...
eta zuen lana maite duzuen irakasle guztioi,
zuei esker mundua pixka bat hobea baita.

Mar Ferrero

Maite zaitugu, andereño
Somos8 bilduma

© testuarena: Luis Amavisca, 2023
© irudiena: Mar Ferrero, 2023
© argitalpenarena: NubeOcho, 2023
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2023
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Te queremos, profe*

Lehen argitaraldia: Apirila, 2023
ISBN: 978-84-19607-07-2
Legezko Gordailua: M-301-2023

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

MAITE ZAITUGU, ANDEREÑO

Luis Amavisca Mar Ferrero

nubeOCHO

Baso Baketsuan oso eskola berezi bat dago.

Kattagorri, Azeri, Hartzatxo, Ahate, Igel eta Untxi egun berri baterako prest daude. Baina, non dago mofeta?

—Esna zaitez, loti eder hori. Berandu iritsiko zara eta.

Goizero, klasera heltzean, Gazela irakasleak
irribarre batez egiten die harrera.

Mofeta eta Untxik harrotasunez erakutsi diote Gazelari euren marrazkia.

Kattagorri eta Hartzatxok astiro irakurtzen dute, eta andereñok esan die pazientziaz hartuz gero, laster izango direla euren kabuz irakurtzeko gai.

Gazelari musika eta dantza irakastea gustatzen zaio. Hartzatxo, Igel eta Untxi pianoa, txirula eta biolina jotzen ikasten ari dira. Mofeta, Kattagorri, Ahate eta Azerik oso gustuko dute dantza egitea.

Hala ere, gehien gustatzen zaiena irakasleak istorioak kontatzea da.

—Irakurri beste ipuin bat, mesedez!— eskatu dio Igelek.